

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Saila**

Iragarkia, Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko sailarena; honen bidez, Bilbo eta Gasteiz artean bidaiariak errepidez garraiatzeko A-3700 kontzesioaren zerbitzu publiko erregular orokorraren proiektua onartu izana jakinarazten da.

Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Foru Diputatuaren martxoaren 10eko 197/2023 foru aginduaren bidez, bidaiariak errepidez garraiatzeko Bilbao-Vitoria/Gasteiz A-3700 kontzesioaren zerbitzu publiko erregular orokorraren proiektua onetsi da, eta honako hau ebatzi da:

Lehena: Onartzea bidaiariak errepidez garraiatzeko Bilbao-Vitoria/Gasteiz A-3700 kontzesioaren zerbitzu publiko erregular orokorraren proiektua, foru-agindu honi erantsitako agirian jasoa.

Proiektu hori zerbitzuaren ustiapena esleitzeko baldintza-agiriaren oinarria izango da.

Bigarrena: Proiektua onartzeko iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea. Proiektua Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orri honetan egongo da eskuragarri, aurreproiektua argitaratu zen berdina dena: <https://web.bizkaia.eus/eu/a3700aurreproiektua>.

Hirugarrena: Foru agindu hau Arabako Foru Aldundiari jakinaraztea, ALHAOn proiektuaren onarpenera iragar dezan.

Laugarrena: Proiektuaren onespeneren berri ematea alegazioak aurkeztu zituzten pertsona edo erakundeei.

Bosgarrena: Administrazio-bidea agortzen duen foru-agindu honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik eta nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio ebazpen hau eman duen organoari, hilabeteko (1) epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik. Dena den, egokitzat jotzen duten beste edozein errekurtso ere aurkeztu ahal izango da.

Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da zuzenean, bi (2) hilabeteko epean, modu berean zenbatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian.

Aukerako berraztertze errekurtsoa jarriz gero, berariaz edo ustez ebatzi arte ezin da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri.

Hori guztia, honako hauekin bat etorritz: 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-erakundeen hautapenari, antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzkoa (69. artikulua); 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (114. eta 123. artikulua); eta 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena (10., 25.1. eta 46.1. artikulua).

Bilbon, 2023ko martxoaren 13an.—Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko foru diputatua, Miguel Ángel Gómez Viar